



Errespetuz eta bakez betetako ideia

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskaera berezi bat egin zion Euskadiko hamabost ikastetxeri. Bertoko ikasleak ikasle etorkinekin batera ikasten ari diren ikastetxe horiei kulturen topaketari eta munduko neska-mutikoen arteko adiskidetasunari buruzko gogoeta egin zezatela eskatu zien. Horrela hasi zen hezurmamitzen simbolismoz betetako ideia eder hau.

Euren ikaskideen eta irakasleen laguntzarekin, hirurogeita hamabost ikaslek, erdiak munduko beste herrialde batzuetan jaiotakoak, haurbiltzar bat osatu zuten Eusko Legebiltzarrean, eskola kulturantz eta integratzailea defendatzeko eta bultzatzeko asmoz. Eta horixe egin zuten 2003ko apirilaren 7an osoko bilkura berezi batean 11 eta 12 urteko legebiltzarkideek, pertsonen bihotzerainoko begirada sakon batez Giza Eskubideak aldarrikatu zituztenean.

Topaketaren azken minutuetan honako agiri hau onartu zuten zera esateko: euren herria mundua dela eta Euskadi euren etxea. Topaketarako, errespeturako, elkarren arteko adiskidetasunerako eta bakerako etxea.

Una idea cargada de respeto y paz

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco pidió a quince centros escolares de Euskadi, donde estudia y convive un alumnado autóctono e inmigrante, que realizara una reflexión sobre el encuentro de las culturas, sobre la amistad entre los niños y niñas del mundo. De esta manera empezó a tomar cuerpo una hermosa idea cargada de gran simbolismo.

Ayudados por sus compañeros y por sus profesores y profesoras, setenta y cinco escolares, la mitad de ellos nacidos en otras partes del mundo, configurarían una asamblea infantil en el Parlamento Vasco para defender e impulsar una escuela multicultural e integradora. Así lo hicieron el 7 de abril de 2003 en un pleno especial, con parlamentarios de 11 y 12 años, en el que reivindicaron los Derechos Humanos y una mirada profunda dirigida al corazón de las personas.

En los últimos minutos del encuentro aprobaron este manifiesto en el que proclaman que el mundo es su pueblo y Euskadi su casa. La casa del encuentro, el respeto, la amistad compartida y la paz.